
Euskadiko Parke Teknologikoak Parke ekosisteman oraintsu sartu diren bederatzi erakunde aurkeztu ditu K-business topaketan

- **Berrilan, Esergui Energies, Tecman Taldea, Gurpea, Igus Motion Plastics, Reka, Save Family, Solidbi eta Trigo Global Quality Solutions dira azken hilabeteetan Euskadiko Parke Teknologikoko campusetan ezarri diren eta gaur topagune honetan parte hartu duten erakundeetako batzuk.**

2026ko ekainaren 4a. Euskadiko Parke Teknologikoak bere Campusetan oraintsu ezarri diren bederatzi erakunde berri aurkeztu ditu gaur K-business topaketan. Berrilan, Esergui Energies, Tecman Taldea, Gurpea, Igus Motion Plastics, Reka, Save Family, Solidbi eta Trigo Global Quality Solutions enpresek euren jarduerak, produktuak eta zerbitzuak ezagutarazi dituzte Euskadiko Parke Teknologikoko erakundeen arteko topagune horretan. Gune horren helburua harremana, lankidetzeta eta negozioaren garapena bultzatzea da.

Ekimena aurrez aurre egin da berriro Donostia, Gasteiz eta Zamudio/Derio Campusetan, hainbat urtez online formatuan egin ondoren. Orain arte egindako topaketa horien 21 edizioetan 300 erakundek baino gehiagok parte hartu dute, eta fruituak eman eta merkataritza akordio ugari ekarri dituzten alde biko 600 bilera baino gehiago egin dira,.

Donostia Campuseko Eraikin Nagusian Berrilan, Esergui Energies eta Solidbi aurkeztu dira; Gasteiz Campusean, berriz, Tecman Taldea, Gurpea eta Reka; eta Zamudio/Derio Campusean Save Family, Igus Motion Plastics eta Trigo Global Quality Solutions.

Aldebiko topaketak

Ekimenak enpresa bakoitzaren aurkezpen erronda bat izan du, eta, ondoren, alde biko topaketak egin dira, negozioen erronka berrietarako baliozko kontaktuak aurkitzeko.

Berrilan arkitekturaren, ingeniartzaren, eraikuntzaren eta azpiegituren kudeaketaren sektoreen eraldaketa digitalean espezializatutako enpresa da. Soluzio teknologiko aurreratuak eta aholkularitza zerbitzuen bidez prozesuen optimizazioa, efizientzia operatiboaren hobekuntza eta proiektuen kudeaketa jasangarriagoa eta lehiakorragoa egiten laguntzen duten metodologia berritzaileak txertatzea bultzatzen du.

Esergui Energies energia-soluzioak biltegitratzen, banatzen eta merkaturatzen lau hamarkadatik gorako ibilbidea duen euskal energia-taldea da. Konpainiak energia-trantsizioari, mugikortasun jasangarriari eta

energia iturri berrien garapenari lotutako ekimenak bultzatzen ditu, berrikuntzarekin eta enpresentzako eta herritarrentzako zerbitzuarekin duen konpromisoari eutsiz.

Tecman Taldea ingeniartzan, instalazioetan, industriako mantentze-lanetan eta energia zerbitzuetan espezializatutako enpresa taldea da. Industriako eta hirugarren sektoreko azpiegituren energia-eraginkortasuna, jasangarritasuna eta errendimendua hobetzera bideratutako soluzioak garatzen ditu, enpresen eta erakundeen instalazioen deskarbonizazio eta kudeaketa adimenduneko prozesuetan lagunduz.

Gurpea mantentze-lan industrialeko, automatizazioko eta prozesuen ingeniartzako zerbitzuetan espezializatutako enpresa da. Bere jardueraren ardatza industriako erakundeei euren instalazioen produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzen laguntzea da, teknologia, ezagutza teknikoa eta etengabeko hobekuntzaren aldeko etengabeko apustua integratzen dituzten soluzio berritzaileen bidez.

Igus Motion Plastics konpainia liderra da errendimendu handiko osagai plastikoen garapenean eta fabrikazioan mugitzen diren industriako aplikazioetarako. Soluzio berritzaileek aukera ematen dute mantentze lanak murrizteko, ekipoen iraunkortasuna handitzeko eta eraginkortasun operatiboa hobetzeko askotariko industria sektoreetan, ekoizpen fidagarriagoa eta jasangarriagoa lortzen lagunduz.

Reka Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza arloan aritzen da, baita mikroorganismoetan, bioestimulatuzaileetan eta nekazaritza sistema jasangarrietara bideratutako ongarrietan oinarritutako produktu eta teknologien kalitatearen kontrolean ere, lurzoruen birsorkuntzan arreta berezia jarrita. Aholkularitza espezializatua, bioproduktu berritzaileen garapena eta balioztatze teknikoko zerbitzuak eskaintzen ditu nekazaritza edo bioteknologia sektoreko enpresentzat.

Save Family enpresa teknologikoa da, eta pertsonen ongizatera, segurtasunera eta konektibitatera bideratutako gailu adimendunak garatzen ditu. Bere soluzioek adingabeen, adinekoen eta familien komunikazioa eta laguntza errazten dute, erabiltzaileen autonomia eta lasaitasuna hobetzen laguntzen duen teknologia irisgarri eta berritzailea txertatuz.

SolidBI SOLIDWORKSen eta 3DEXPERIENCE plataformaren banatzaile ofiziala da, produktuen diseinurako, garapenerako eta fabrikaziorako soluzioetan espezializatua. 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin, konpainiak tresna teknologikoak ezartzen laguntzen die enpresei, diseinu eta ingeniartza prozesuak optimizatzeko, produktuen bizi zikloaren kudeaketa hobetzeko eta fabrikazio prozesuen eraginkortasuna handitzeko.

Trigo Global Quality Solutions garraio-industriako kalitate-kudeaketaren munduko liderra da. 30 urte daramatza automobilgintzako, sektore aeroespazialeko, defentsako, trenbideko eta garraio astuneko fabrikatzaile nagusiekin lankidetzan. 12.000 langile baino gehiago ditu 28 herrialdetan, eta nazioarteko hornidura kate konplexuen kalitate erronkei aurre egiteko baliatzen du bere esperientzia.

K-business Euskadiko Parke Teknologikoaren Networking zerbitzua da, eta enpresei elkar ezagutzen eta inguruko beste enpresa eta eragile batzuekin harremanetan jartzen laguntzea du helburu, lankidetzan aritzeko eta negozioa garatzeko aukerak identifikatuz eta sortuz.

K-business zerbitzua, zerbitzu espezializatuen katalogo berri baten bidez enpresa-proiektuen beharrak asetzea helburu duen Euskadiko Parke Teknologikoaren BEParke ekimenaren barruan dago. Ildo horretan, Networking K-business zerbitzuaz gain, PARKE markak beste lau zerbitzu ditu: K-talent, K-impulse, K-future eta K-media, garapen enpresarial, profesional eta pertsonala bultzatzeko pentsatuak.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

prentsa@parke.eus

T 94 403 95 00